

ZAHARTZE AKTIBO ETA OSASUNGARRIRAKO ZERBITZU BERRITZAILEAK

[Bizilekuaren eta elkarbanatutako bizilekuaren arteko trantsizio-irtenbideak]




Bertan mugaz gaindiko proiektu bat da, eta zerbitzu berriak hobetzea eta gidatzea du helburu, adinekoen bizi-kalitatea bermatzeko, mugaz gaindiko trukeen eta lurralde-eragileen sare-lanaren bidez, Euskadiko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko landa-eremuetan, funtsezko lau esparrutan:

1. **Garraioa.**
2. **Ostatua.**
3. **Etxeko zaintza eta zaintzaileak.**
4. **Antzematea eta esku-hartze goiztiarra gizarte-kalteberatasuneko egoeretan.**

Gida honek, zehazkiago, **2 ardatzaren “BIZILEKUAREN ETA ELKARBANATUTAKO BIZILEKUAREN ARTEKO TRANTSIZIO-IRTENBIDEAK”**, landa-eremuetako adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Eskualde Garapeneko Europako Funtzak (EGEF) % 65ean kofinantzatu du Bertan, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren bidez (POCTEFA 2014-2020).



- Sakana Nafarroako ipar-mendebaldean dago, Araba eta Gipuzkoarekin mugan, eta **21 herri** daude hiru eremutan.
- **25.212** pertsona bizi dira eremu horretan, 2016an baino 438 gutxiago.

- **65 urtetik gorako pertsonak** biztanleriaren **% 20,69 dira**; 2.739 emakumeak dira (% 52,5) eta 2.478 gizonak (% 47,49)

- 65 urtetik gorakoen % 21,46 eta **80 urtetik gorakoen % 38,82 bakarrik bizi dira.**
- Zahartze-indizea % 134,99koa da emakumeen kasuan, eta % 111,97koa gizonen kasuan.
- Bizi-itxaropena 86,2 urtekoa da emakumeen artean, eta 80,1 urtekoa gizonen artean. Mendekotasun demografikoaren indizea 70,02 da Sakanan.


- BIZTANLERIA-DENTSITATEA: 45 BIZT./KM2 • 38,9 ETXEBIZITZA HEKTAREAKO • BATEZ BESTEKO AZALERA: 147,6 M2
- ETXEBIZITZAREN BATEZ BESTEKO ADINA: 82,6 URTE (% 49,96K 50 URTE BAINO GEHIAGO DITU).

- Familientzako errenta erabilgarria 20062.95 €-koa da, **Nafarroa osoaren azpitik.**
- Errenta Bermatuaren onuradunak mila biztanleko 28.83 dira, batez beste, udalerrri guztien artean (3 puntu gehiago emakumeetan).

- 75 urtetik gorako pertsonen % 80.10ek **ez du inoiz Internet erabili**
- 65 eta 74 urte bitartekoen % 77.30ek noizbait erabili dutela adierazi du, eta ez da alde esanguratsurik antzeman gizonen eta emakumeen artean.

Bi helburu nagusi ezarri ziren proiektuan:

1. **Europako landa-ingurunean etxebizitza-eredu berriei buruz dauden ereduak identifikatzea eta haietatik ikastea. Beste leku batzuetan abian jarri diren programa edo jarduketan adibideak aztertu ziren, hala nola:**
 - Etxebizitzaren irisgarritasun- eta erosotasun-beharrak aztertzeko laguntza-zerbitzua
 - Baliabideen Zentro Balioanitzza
 - Etxebizitza babestuak, adinekoen etxebizitzak
 - Egoitza txikiak
 - Bizitza osorako etxebizitzak
 - Etxebizitza kapitalizatzea
 - Etxebizitza kolaboratiboak
2. **Etxebizitza bat abiaraztea, ibarrean identifikatutako beharrei erantzuteko eta Europako landa-ingurunean dagoeneko martxan dauden beste proiektu batzuetatik ikasitakoaren bitartez.**



Ikerketaren helburuak lortzeko, koktel metodologiko bat proposatzen da, ikerketa kualitatiboa eta kuantitatiboa konbinatzen dituen. Planteatutako metodologiak ondo bereizitako hiru zati ditu, baina elkarrekin lotuta daude.

Helburuak:



1. zatia: datu estatistiko kuantitatiboak biltzea, jarduera-eremuaren testuingurua ezartzeko.



2. zatia: Lurralde bakoitzeko funtsezko aktoreen identifikazioa. Mapatzea 7 ardatz nagusitan egituratu da:

- **1. Soziokulturala (kulturala/kiroletakoa/aisialdikoa):** Adinekoen, emakumeen, elkarte gastronomikoen, kirol-elkarteen, ehiza- eta arrantza-elkarteen eta abarren elkarteak.
- **2. Sozioekonomikoa:** Sozioekonomikoa: tokiko merkataritza eta ostalaritza (farmaziak eta optikak barne), garraioak eta banatzaile komertzialak.
- **3. Erlijiosoa:** Batez ere parrokiak eta erlijio-mugimenduak.
- **4. Soziopolitikoa:** Elkarte eta talde politikoak eta zinegotzi/alkate pedanoak.
- **5. Osasuna:** Osasun komunitarioko baliabide formalak.
- **6. Hezkuntza:** Haur eta helduen hezkuntzako baliabide formalak.
- **7. Gizarte zerbitzuak:** Gizarte zerbitzuen zorroaren baliabide formalak



3. zatia: azterlanaren lau gai-eremuei buruzko elkarrizketa sakonak eragile eta teknikariek. Elkarrizketatutako pertsonak erakunde hauetakoak dira:

- Kamiogaina erretiratu eta pentsiodunen elkarte, Olazti.
- Altsasuko erretiratuak.
- Egau Aldaba erretiratuen elkarte.
- San Juan, Lekunberriko erretiratuen elkarte.
- Urdiaingo erretiratuen elkarte.
- Arbizuko erretiratuen elkarte.
- Lakuntzako erretiratuen elkarte.
- San Martín erretiratu eta pentsiodunen elkarte.
- Irurtzungo Sasoiak elkarte.
- Beteluko erretiratuen elkarte.



4. **zattia:** hurbileko proiektuak eta Europako beste landa-ingurune batzuetakoak identifikatzea.

5. **zattia:** DAFO analisi bat egitea (Ahuleziak -Mehatxuak -Indarrak -Aukerak)

6. **zattia:** Elkarriketak hainbat entitateri, biziguneetarako irtenbideak abian jarri baitituzte:

(1) Etxekonak Bat. (2) Etxekide. (3) Arterra Bizimodu. (4) Zeraingo Udala. (5) Urepeleko Udala.

Elkarriketa horietatik ondorio batzuk atera dira, adinekoentzako etxebizitza bat abian jartzeko kontuan hartu beharrekoak:

Emaizak:

-  Oro har, adineko pertsonen, etxean bizitzen jarraitzeko gogo dute; familia-etxera errotuta dago.
-  Etxebizitza-eredu bakoitza, desberdina da; bertan bizi diren pertsonen kolektibo bakoitzaren beharren, zerbitzuen eta espazioak kudeatzeko moduen arabera erabakitzen dute.
-  Zahartze aktiboa sustatu nahi den etxebizitza-gune bat abian jartzeko, beharrezkoa da sortu nahi den komunitatea dinamizatzen duen erakunde edo pertsona gaitu baten laguntza, parte hartzeko metodologia eta tekniken bidez. Helburua, espazio horretan bizi diren pertsonak modu aktiboan bizi ahal izateko espazio bat sortzea da eta horretarako, funtsezkoa da proiektuaren parte sentitzea.
-  Bizitza aktiboa sustatzeko espazioak edo etxebizitzak berriak dira gure lurraldean. Beharrezkoa da gure gizartea horrelako egoitza-aukeretan prestatzea.

Horrekin guztiarekin, jarduera hauek egin dira pilotu hori abian jartzeko:

1. Lan horretan laguntzeko, bideo bat egin zen tokiko administrazioari, Nafarroako Gobernuari eta etxebizitza kolaboratiboetan parte hartzen duten pertsonekin. Bideo honen helburua, pilotuaren nondik norakoak aurkeztea, Nafarroako Gobernuaren elkarlaneko etxebizitzaren gaineko politikei buruzko informazioa ematea eta etxebizitza horietan bizi diren pertsonen benetako adibideak erakustea izan da. Etxekonak Bat eta Etxekide elkarteek elkarriketatatu ziren.
2. Aurkezpenak, herriz herri, proiektuari buruzko informazioa emateko eta interesa duen jendeak bertan izena emateko.



Lortutako emaitzak:

1. Olatzeko etxebizitza-eremua egokitu da, Nafarroako Gobernuari horrelako guneetarako eskatzen dizkion lege-baldintzak betez.
2. 2) Gune hori legez eta kudeaketaz abian jartzeko bi modu aztertu dira:
 - **Lehenengo aukera:** Toki administrazioen eta lehendik dagoen entitate baten arteko akordio batekin, etxebizitza abian jartzea azkartzeko eta lehendik dagoen entitateak etxebizitzaren kudeaketa kudeatzeko.
 - **Bigarren aukera:** Toki administrazio publikoek espazioaren kudeaketa osoa egitea.

Bi aukerak baloratu ondoren, **bigarren aukerarekin jarraitzea erabaki da**, nahiz eta martxan jartzeko denbora gehiago behar izan. Toki-administrazioek hartutako erabakia da, eta kudeaketa publikoaren aldeko apustu argia egiten dute.

Proiektua bukatutakoan, 6 pertsonak parte hartu edo bertan bizi nahi dute. Kopurua hori izanik, oraingoz ezin da ekonomikoki onartu espazio hori abian jartzea.

Hala ere, toki-administrazioek proiektu horren alde egitea erabaki dute, POCTEFA proiektua gauzatu ondoren proiektuan lanean jarraitu dezakeen pertsona bat kontratatuz, **helburu hauekin:**

1. **Proiektua sustatzea:** Proiektuan zehar diseinatutako espazioan bizi nahi duten pertsonak bilatzea.
2. **Zahartze** aktiboko zerbitzu koordinatuen kudeaketa, haran osorako.

Bestalde, komunikazioa hobetzeko eta pilotu honekin lortu nahi ziren helburuak aurkezteko, bideo bat egin zen Eneko Larrarte Nafarroako Gobernuako Etxebizitza zuzendari nagusiak, Etxekide eta Etxekide kooperatibek eta Sakanako Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateetako lehendakariak parte hartuta. Bideo hori youtube plataforman argitaratu da, eta elkarlaneko etxebizitzak eta gure gizartearentzako onurak baloratu nahi ditu.

Proiektuaren beste alderdi aipagarri bat Nafarroako Parlamentuan parte hartzea da, Etxekonak eta Etxekide kooperatibekin batera, elkarlaneko etxebizitzari buruzko lan-mahai batean.

Mugaz gaindiko lehen BERTAN foroa,
“EREDU BERRIAK ADINEKO PERTSONEN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO ETXEBIZITZAREN EREMUAN”
 formatu erdipresentzialean egin zen; Altsasuko kultur etxean bertan, lortian, eta telematikoki, 2021eko maiatzaren 5ean.

Foroan, sortze-fase desberdinetan dauden eta hainbat eredu eskaintzen dituzten elkarlaneko etxebizitzaren hainbat erakunde aurkeztu ziren: Etxekonak Bat, Etxekide, Arterra Bizimodu (Nafarroa), Banka (Iparralde) eta Zerain (Gipuzkoa).

98 inskripzio izan zituen.
 44 pertsona joan ziren forora.
 Erkidegoen arabera: Iparraldea: 16 / EAE: 13 / Nafarroa: 15.

Foroa oso positiboki baloratzen da, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki.



Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF)
% 65ean kofinantzatutako proiektua

Interreg POCTEFA



UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE

Bazkideak



Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
Cooperativa de Iniciativa Social



Bazkide elkartuak

